BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4196

AGINDUA, 2011ko ekainaren 7koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, 2010-2011 ikasturterako Karmele Alzueta sarirako dei egiten duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan Berriztapen Proiektuak egitea bultzatu ohi du, hala deialdi espezifikoen bitartez, nola aipatu ikastetxeetan irakasteko edo antolatzeko praktikan berriztapenak sartzeko jarduerak zuzenean proposatuz eta diruz lagunduz.

Halaber, Sailak, Hezkuntza Berriztatzeko Proiektuak ikastetxeen pedagogia-autonomiaren adierazpentzat hartuz, eta aipatutako Proiektuei eta esperientziei bultzada handiagoa eman nahian, eta horrela, irakaskuntzan, bai ikasgela barruko jardueran bai Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako antolaketa eta koordinazio alderdiei dagokienez, kalitate handiagoa lortzen lagunduko duten mekanismoak indartzeko, burututako Berriztatze Proiekturik hoberena saritzeko deialdia egitea erabaki du.

Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiko Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak(azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuak(VI. tituluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren eremuko diru-laguntzak arautzeari buruzkoan, eta abenduaren 23ko 5/2010 Legeak (2011ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak(xedatutakoaren arabera, eta Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren proposamenez, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Karmele Alzueta sarirako dei egiten da, agindu honetan jasotako oinarriekin bat. Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan 2010-2011 ikasturtean garatutako hezkuntza berriztatzeko proiektuei emango zaie saria.

2. artikulua.– 1.– Hezkuntza berriztatzeko proiektu onenarentzako Karmele Alzueta Saria 15.000 eurokoa izango da. IV. eranskinean ezarritako baremoaren arabera puntu gehien lortzen duena izango da proiekturik onena.

2.– Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako proiektu bat kalitate handikotzat jotzen bada, Ohorezko Aipamena ere eman dakioke, 1.500 euroko diru-kopuruarekin. Hezkuntza-aldi horietako lanen artean puntu gehien lortzen duen proiektua izango da hori, saria irabazten duen proiektua alde batera utzita.

Era berean, Bigarren Hezkuntzako proiektu bat kalitate handikotzat jotzen bada, Ohorezko Aipamena eman dakioke, hori ere 1.500 euroko diru-kopuruarekin. Hezkuntza-aldi horietako lanen artean puntu gehien lortzen duen proiektua izango da hori, saria irabazten duen proiektua alde batera utzita.

3.– Aurkeztutako proiektuek gutxieneko kalitatea ez badute, Hautaketa Batzordeak eman gabe utzi ahal izango ditu sariak.

3. artikulua.– Sari honetan Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako edozein ikastetxek har dezake parte, bertan hezkuntza berriztatzeko proiektu bat garatu bada azken bost urteetako edozeinetan.

Ezin izango dute parte hartu, ordea, azken hiru deialdietan saria jaso duten zentroek.

Halaber ikastetxeek ezin izango dute parte hartu baldin zehapen penal edo administratiboaren ondorioz laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzeko aukera galdu badute edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean badaude, sexuak bereiztearren izandako debekuak barne, betiere Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenak –Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateratuaren 50. artikulua aldatzen duenak– ezarritakoaren arabera.

4. artikulua.– Eskabideak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren Pedagogia Berriztapeneko Zerbitzura (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) bidaliko dira, zuzenki, edo herritarren arretarako bulegoen bidez, Zuzenean zerbitzuaren bidez (Gran Vía 85, 48011 Bilbao; Andía 13 20003 Donostia-San Sebastián; Ramiro de Maeztu 10 01008 Vitoria-Gasteiz) edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako edozein bulegoren bitartez. Eskabidearekin batera, honako agiriak aurkeztu beharko dira:

1.– I. eranskinaren araberako eskabidea.

2.– Ikastetxeko zuzendariak sinatutako eskabidea, proiektua zein ikasturtetan garatu den egiaztatzen duena.

3.– Ikastetxeko zuzendariaren aitorpen arduratsua, ondokoa egiaztatuz: Eskatzaileari edo ordezkari den erakundeari ez zaiola diru-laguntza publikoak jaso ezin izateko zigor arloko edo administrazio-zigorrik ezarri, ezta, halaber, horretarako ezgaitzen duen inolako lege-debekurik ere; lege-debeku hauen artean sexu-diskriminazioarengatik gertatu direnak sartzen dira, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoak, azken seigarren xedapenean zehaztutakoaren arabera (III. eranskina).

4.– Egindako proiektuaren memoria, bi aletan eta paperean idatzia, gutxienez honako puntuok jasoko dituena:

a) Proiektuaren deskribapen laburra; eta hor zehaztuko dira egindako jarduerak eta irakaskuntzan nola txertatu diren: IUPn, IIPn, ikasgelan eta zein testuingurutan garatu diren.

b) Helburuen lorpena:

– Hasieran proposatutakoak.

– Proiektuaren bukaeran lortutakoak.

c) Proiektuan erabilitako ebaluazio-prozesua.

d) Ondorioak:

– Proiektuaren lorpenak.

– Eragina: irakasleengan, ikasleengan eta hezkuntza komunitatean.

e) Proiektuaren hedapen plana.

f) Parte hartu duten irakasleen zerrenda, proiektuaren koordinazioaren arduraduna adieraziz.

g) Prestatutako materialak.

5. artikulua.– 1.– Deialdi honetan parte hartzeko eskaera aurkeztu beharko da hilabeteko epean, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

2.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimentzen dituztenak, Karmele Alzueta saria fitxategian jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako sariak eta deialdi honetara aurkezten diren zentroen arduradunei deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze-eskubideak erabiltzeko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Halaber, deialdi honetan parte hartu duten zentroen arduradunek Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari baimena ematen diote, beste erakunde publiko batzuetan, aurkeztutako dokumentuen benetakotasuna egiaztatzeko.

3.– Agindu honek araututako prozeduraren epea gehienez ere sei hilabetekoa izango da, indarrean jartzen denetik aurrera.

6. artikulua.– Karmele Alzueta Saria eta ohorezko aipamenak Hezkuntzako sailburuordeak emango ditu, Hautaketa Batzordearen proposamenez. Bestalde, Hautaketa Batzordea sailburuordeak berak izendatuko du, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren proposamenez, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betetzen dela bermatuko da. Honako hauek osatuko dute Batzordea:

– Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria edo horrek eskuordetzen duena; lehendakari izango da.

– Lurralde bateko Pedagogia Berrikuntzako lurraldeburua edo horrek eskuordetzen duena.

– Hezkuntzako Ikuskaritza Nagusiko ordezkari bat.

– Lurralde bakoitzeko Berritzeguneetako aholkulari bat.

– Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako Pedagogia Berriztapeneko zerbitzuburua.

– Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako hiru funtzionario; hauetariko bat idazkaria izango da.

7. artikulua.– Hautaketa Batzordeak IV. eranskineko irizpideak izango ditu kontuan aurreko idatz-zatian aipatutako proposamena prestatzeko.

8. artikulua.– 1.– Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta ondorengo bost hilabeteen barruan Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da Hezkuntzako sailburuordearen ebazpen bat, Agindu honen 2.2 artikuluan aurreikusitako saria eta ohorezko aipamenak emateko.

2.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

3.– Lehenengo paragrafoan aipatutako epean ebazpena argitaratzen ez bada, eskabideak ezetsi egin direla uler daiteke.

4.– Ebazpena argitaratu ondoren, saria nahiz ohorezko aipamenak ordainduko dira, eta saririk jaso ez duten proiektuak itzuli egingo dira, bakoitza bere ikastetxera.

9. artikulua.– Saritutako ikastetxeak eta ohorezko aipamena jaso dutenek Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko eginkizunen barruan, eskatuko duten informazio guztia eskaini beharko dute.

10. artikulua.– Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak dagozkion neurriak hartuko ditu deialdi hau behar bezala gara dadin.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Prozedurari dagokionez, oinarrietan aurreikusten ez den guztirako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotakoa ezarriko zaio.

Bigarrena.– Agindu honek administrazio bidea agortzen du, eta bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari hilabeteko epean edo, bestela, bi hilabeteko epea egongo da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 7a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

I. ERANSKINA (ESKABIDEA) / *ANEXO I (INSTANCIA)*

2010-2011 Karmele Alzueta Saria / *Premio Karmele Alzueta 2010-2011*

Ikastetxearen datuak / *Datos del centro*	
Izena/*Nombre*:	
Publikoa/*Público*:	
Itunpekoa/*Concertado*:	
Pribatua/*Privado*:	
Helbidea/*Dirección*:	
Herria/*Localidad*:	Posta kodea / *Código postal*:
Probintzia/*Provincia*:	Telefonoa/*Teléfono*:

Egileen datuak / *Datos de los autores o autoras*
Egilea edo koordinatzailea / *Autor, autora o coordinador coordinadora:*
Espezialitatea/*Especialidad*:

Ekintzaren gaineko datuak / *Datos de la experiencia*
Izenburua/*Título*:
Berriztapen eremuak / *Áreas de innovación*:
Hezkuntza-etapa, zikloa, kurtsoa / *Etapa educativa, ciclo, curso*:
Irakasle parte hartzaileen kopurua / *N.º de profesoras y/o profesores participantes*:
Espezialitateak/*Especialidades*:
Materiala aurkezteko formatua / *Formato en que se presenta el material:*
Esperientziaren iraupena / *Duración de la experiencia*:

ESKABIDEA/*SOLICITUD*:

Honekin batera doazkizu 2010-2011 Karmele Alzueta Sariaren deialdian parte hartzeko eskabidea, lanaren bi ale, ikastetxeko zuzendariaren ziurtagiria eta zinpeko aitorpena.	*Remito la presente instancia junto con dos ejemplares del trabajo, certificación y declaración jurada, al objeto de participar en la convocatoria del Premio Karmele Alzueta 2010-2011.*

Ikastetxeko zuzendaria / *Director o Directora del Centro educativo*:

(Lekua, data, sinadura eta zigilua / *Lugar, fecha, firma y sello)*

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA / *SR. DIRECTOR DE INNOVACION EDUCATIVA*

II. ERANSKINA

..... jaunak/andreak
.....ikastetxeko zuzendariak

HONAKO HAU ESKATZEN DUT:

Hezkuntza berriztatzeko
.....
izenburuko proiektua onartzeko 2010-2011 ikasturteko Karmele Alzueta Sariaren deialdian. Horretarako hau

ZIURTATZEN DUT:

Proiektua ikastetxean garatu dela ikasturte honetan/hauetan:.....

....., 2011ko .....aren .....(a)

Zuzendaria

Sinadura eta zentroaren zigilua

III. ERANSKINA

AITORPEN ARDURATSUA

..... jaunak/andreak,
..... ikastetxeko zuzendaria den aldetik

AITORTZEN DU:

- Eskatzaileari edo ordezkari den erakundeari ez zaiola diru-laguntza publikoak jaso ezin izateko zigor arloko edo administrazio-zigorrik ezarri, ezta, halaber, horretarako ezgaitzen duen inolako lege-debekurik ere; lege-debeku hauen artean sexu-diskriminazioarengatik gertatu direnak sartzen dira, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoak, azken seigarren xedapenean zehaztutakoaren arabera.

- Eskatzailea edo ordezkari den erakundea ez dagoela dirulaguntzak itzultzeko edo zigortzeko inolako prozeduratan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Orokorrak eta haren organo autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik tramitazio-fasean dauden prozeduretan, alegia.

- Era berean, jakitun dagoela, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, deialdiko deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak Karmele Alzueta Saria fitxategian sartuko direla, bertan azaltzen diren lagunek baimena ematen dute datu horiek landu eta argitaratzeko. Fitxategi hori erabili egingo da diru-laguntzen deialdi hau eta beronekin zerikusirik duen beste edozein prozedura edo administrazio-espediente kudeatzeko, bai eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko ere. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza izango da fitxategiaren arduradun. Datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideak betetzeko, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara jo beharko da, honako helbide honetara, hain zuzen ere: Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

-Halaber, NEURE GAIN HARTZEN DUT, dirulaguntza emateko exijitu eta kontuan hartutako baldintzetako batzuei eragiten dien edozein zirkunstantzia aldatuz gero, aldaketa hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari jakinarazteko KONPROMISOA, berbererako dirulaguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eman badituzte

(non) ....., 2011ko .....aren ....(e)an

Zuzendaria
(Izena eta sinadura)

IV. ERANSKINA

AURKEZTUTAKO LANAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

1.- Proiektuaren testuingurua eta justifikazioa (0tik 1,5 puntutara).

a) Proiektuaren gaia Sailaren lehentasun eremuren batekin egokia izatea.

b) Irakasleak, ikasleak eta ikastetxeko gainerako kideak zenbateraino inplikatu diren.

c) Ikastetxearen urteko planean, Ikasketa Proiektuan jasota egotea eta Hezkuntza-Proiektuarekin erlazionatuta egotea.

2.- Lortu nahi diren helburuak argiak izatea eta arrazoizko epe batean lortzeko modua izatea (0tik 1,5 puntutara).

a) Helburuak argi definituta daude proiektuan.

b) Helburuak gauzatzeko arrazoizko epeak zehazten dira.

c) Etorkizunean lortu nahi diren helburuak egotea.

3.- Garatutako jardueren pertinentzia (0tik 1,5 puntutara).

a) Ekintzak koherenteak izatea helburuekin.

b) Proiektuak ikasleen aniztasunaren trataera jasotzea.

c) Jarduerak proiektuaren metodologiara ondo egokituta egotea.

4.- Proiektuaren kudeaketa eta kalitatea (0tik 1,5 puntutara).

a) Lan-egitasmoen exekuzioa: metodologia, tenporalizazioa, sekuentziazioa.

b) Koordinazio-neurri argiak egotea, atazak esleitzea.

c) Prozedura berriak aplikatzea gelako irakaskuntzako esku-hartzean edota ikastetxeko antolamendu- eta harreman-sisteman.

5.- Proiektuaren ikuspegi multidiziplinarra (0tik 1,5 puntutara).

a) Elementu globalizatzaileak eta/edo multidiziplinarrak sartzea oinarrizko curriculumean.

b) Zeharkakotasuna garatzea curriculumean.

c) Eragina izatea bestelako eskola-jardueretan (tutoretzak, eskolaz kanpoko jarduerak...).

6.- Ikasleen motibazioa handitzeko lagungarria izatea (0tik 1,5 puntutara).

a) Lan egiteko, parte hartzeko eta motibagarria den metodologia bultzatzen duten baliabide didaktikoak erabiltzea.

b) Ikasleen parte hartzea proiektuko ebaluazioan.

c) Proiektuko helburuak lortzeko, teknologia berrien ekarpenak egotea.

7.- Proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko proposamenen kalitatea (0tik 1,5 puntutara).

a) Proiektuaren barne jarraipena egiteko jarraibideak izatea. Ebaluazio-plana, irizpideak, adierazleak, tresnak, aldiak.

b) Proiektuaren ebaluazioaren emaitzak izatea.

c) Helburuak lortzeko aldaketa edo hobekuntzarako proposamenak egotea.

8.- Prestatutako materialen kalitatea (0tik 1,5 puntutara).

a) Irakasle eta ikasleentzat materiala edukitzea.

b) Ikasleek eta irakasleek diseinatutako jardueren ereduak.

c) Honakoak hartzen ditu barne: bideoak, CD-ROMak eta bestelakoak.

9.- Proiektuak hedatzeko/zabaltzeko dituen aukerak (0tik 1,5 puntutara).

a) Proiektuaren berri eman zaie beste ikastetxe batzuei.

b) Proiektuaren berri eman zaio Hezkuntza Komunitateari eta baita beste eragile batzuei ere (IGEei, udalei, GKEei,...).

c) Ikastetxeko ohiko baliabideekin burutu daiteke.

10.- Proiektuak hezkuntza arloan dimentsio europarrari egiten dion ekarpena (0tik 1,5 puntutara).

a) Proiektua ikuspegi europar batetik bideratu nahi da.

b) Dimentsio europarreko osagaiak ditu (hiritartasuna, nortasuna, atzerriko hizkuntzak erabiltzea, e.a.).

c) Europan zabaldu da.

11.- Proiektuaren interesa eta garrantzia (0tik 1,5 puntutara).

a) Proiektuaren izaera berritzailea.

b) Proiektuaren interesa, antzemandako behar bati erantzuten dion neurrian.

c) Proiektua aplikatu ondorengo hobekuntza.